

«bat-batean eraikinak erortzen [hasten dira] bata bestearen ondoren, lurra jo baino lehen hauts masa baten atzean desagertu eta harri zein hondar pila batean hausteko gero». Irudiok jaioterriarekiko maitasun-gorrotzoko harremana duen Shammass asaldatu egiten dute. «Zer pertsona motak eraisten du bere memoria?», galdetzen dio arkitektoari. Honek isekazko keinu bat besterik ez du egiten. «Oroitzapenak! Memoriarik gabeko herria da hau. Zertarako balio du memoriari? Zabor eta kaka zaharraren oroitzapenak, c'est fini».

Zeinek gogoratu nahi du?

Arkitektoaren argudioak badu zentzu pixka bat. Zeinek gogoratu nahi du inork irabazi ez zuen gerra zibila? Tokiko taldeak –katolikoa, musulmanak eta druzoak– gogor borrokatu ostean, Saudi Arabiaren bitartekaritzarekin 1989an gerrari amaiera jarri zion Taif Hitzarmenak Siriari eman zion bakea bermatzeko eskuduntza, eta horren aitzakian hamasei urtez Libano okupatu zuen. Herrialdeko talde eta alderdi politikoetatik bat bakarra ere ez zen gertatutako sarraskiengatik errugabe, baina denek aldarrikatu zuten biktima egoera. Gertatu zena- ren edo haren gaineko ardura zeinek zuen erabakitze orduan adostasunik ez zegoenez, bake garaiko adiskidetzeko prozesua ahazteko borondatean oinarritu zen. Estatuak alderdi guztietako gerra jauntxoek amnistia eskaini zien –haietarako asko boterera itzuli dira azken urteetan– eta gatazkan desagerturiko 17.000 libanoarren kasuak ikertzeari uko egin zion.

Libanoko intelektualetan artean inork gutxiak azaldu du Khurik beste interes memoria kolektiboa osatu beharrene alde. 1993. eta 2009. urteen artean editatu zuen *al-Nahar* egunkariako kultura gehigarria gerraosteko akordioek inposaturiko amnesia n nondik norakoan erakusleho eta gogoe- tagune bihurtu zuen. Beiruterako Solidere eraikuntza enpresak diseinaturiko zinak «segurtasun pribatuak zainduta hesitutako auzoen gotorleku eskusibo» bezala deskribatu izan ditu, eta hiriko talde etnikoen arteko bizikidetzari begira duten arriskuaz mintzatu da behin baino gehiagotan. Khuriren memoriaren aldeko jar- rerra ez da atzerakoia ezta nostal- gikoa ere. Libanok bere historia gaintzeko modu bakarra hari aurre egitea dela uste du; iragana itaundu behar du «orainaldia erreibindikatze».

DeLillo herrenka

Alex Gurrutxaga

Galdutako aukera: ho- rixe ematen du Don DeLilloren eleberria- ren itzulpenak. *Zero K* New Yorkeko idazlearen hama- zarpigarren eleberria da, euska- raz irakur dezakegun lehena. Meettok etxeak argitaratu du, eta, euskaraz irakurrita, ez du ematen munduaren hamaika bazterretan idazle handizat dau- katen egilearen testua.

Kritika beti ados egon ez bada ere, oro har oso aintzat hartua izan da DeLillo –Nobela jasetzeko hautagai nagusietako bat ere bada–, eta adituek postmoderni- tatearen erretratista bikainen ar- tekotzat jotzen dute. T. Pynchon, C. McCarthy eta P. Rothen belau- naldikotzat har daiteke, eta mun- du mailako sona eman diote *White Noise* (1985), *Underworld* (1997) edo *Cosmopolis* (2003) be- zalako eleberriek.

Zero K-n, magnate aberats ba-

ten emazteak kriogenizazioa au- keratu du etorkizun hobean «berpizteko» asmoz. Senarraren semea da narratzailea, eta haren begiradaren bidez jasoko dugu kriogenizazio-gunearen berri, eta baita, hirugarren partean, se- meak AEBetan egiten duen bizi- raren berri ere. Bi alderdi nagusi daude, beraz. Batetik, teknolo- giaren eta heriotzaren inguruko



'Zero K'

Egilea: Don DeLillo. **Itzulzailea:** Aritz Gorrotxategi. **Argitaletxea:** Meettok.

Emozioa filosofoei azaldua

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Tapa gogor sendoekin bildua, 40 orrialdeko album ilustratua da, 25 x 25 cm-koa.

Balizko irakurleari buruz pen- tsa liteke liburu azalean aitona- ren lepoan agertzen den haurra- ren adinkidea izan daitekeela, nahiz eta, agian, liburu honek beste adin aproposago bat daukan.

Zuria nagusi, kolore hori-gorri- arreen artean, paseo baten kroni- ka egiten zaigu. Ezer berezirik gertatzen ez denez –ez ihesaldi, ez gaizto, ezta susto larririk ere– unean uneko ekintza xumeei ematen zaion indarra, eta haueta- tik eratorritako emozioa bihur- tzen da irakurketaren plazer gu- nea. Aitonaren eskutik helduta, aharrusiak, malkotxoak, eskua bularrean, oinak uretan, elkarren ondoan eserita... Irudiek ere de-

taileetan jartzen digute begirada, ikuspuntu subjektiboa nagusi.

Honekin batera metafora era- biltzen da («bi filosofo lez goaz paseoa»), bizitzari buruzko hausnarketak eta plazaratzeko: «hostoak askotarikoak dira, jen- dea bezala».

Eta hain zuzen azken ezaugarri honek eginarazten dio, nire uste- z, irakurlearen adinari goraka: amaitzen ari zaion haurtzaroari azken begirada eman nahi dion filosofo txikiaraino.



'Tipi-tapa-tipi ilunabarrean'

Idazlea: Miren Agur Meabe. **Ilustratzailea:** Eider Elbar. **Argitaletxea:** Denonartean.

gaia dago, oinarri etikoa dauka- na: teknologiaren bidez heriotza garaitu ote daiteke, ez al da ab- surdua ideia hori, eta abar. Beste- tik, pertsonen harremanak dau- de: aita-semeena batez ere, eta baita semeak bere ohekidearekin daukana ere. Harreman indarge- ak dira, hartu-eman gutxiakoa, eta erlazioen krisi hori da elebe- rriak islatzen duena.

DeLillo gure garaia- ren patolo- go zorrotza da. Birsortzen duen mundua ziurgabetasunean gal- tzen da, espektrala da; perso- naien identitatea grisa eta ahula da; eta teknologiaren presentzia, berriz, erabatekoa, pertsonaia- k errealitatearen eta mundu tek- nologikoaren artean galtzeraino- koa –pantailak, beti pantailak–. Nobelaren beste hari filosofiko inportante eta konplexu bat izen- naren –izendatzearen– eta izan- naren inguruko da: «Zergatik ez jarraitu gure hitzak fisikoki etor- kizunean?».

DeLillo irakurtzean, zalantza egin dezake batek ea egileak zer erakutsi nahi digun, gizarte ga- raikidearen irudi ahalik eta ob- jektiboena, honen bikaintasuna, ala gure bizimoduaren deriba

apokaliptikoa. Zalantzak zalan- tza, begiratu kritikoa eta analiti- koa dauka egileak, kirurgikoa, eta horrela uler daitezke irudika- tzen dituen mugako egoerak ere. Ezin esan, hala ere, ideia erabat garbi edo panfletariorik ematen eruenik; tesi-nobelak baino, hi- potesi-nobelak dira DeLillore- nak, galderaz beteak.

Itzulpenari dagokionez, hasie- ran iradoki bezala, saihetsezina ematen du iruzkin negatiboak. Orokorrean, euskararen adieraz- kortasun falta nahiko nabarme- na da. Gainera, ez da ulertzen erraza ingeles-euskara baliokide- tza bilatzeko segitako kriterioa: hautu linguistikoko bitxiak –hitz bakarra itzultzeko sinonimoen erabilera, adibidez–, lexiko pre- ziosista –erabilera urriko hitzak hitz ingeles arrententzat–, eta abar. Azkenean, erabilitako eus- kararen naturaltasun eta sines- garritasun falta direla medio, he- rrenka egiten du testuak –eta ira- kurleak– aurrera.

Don DeLillok merezi du, dudu- rik gabe, irakurketa ahalegin bat bederen. Beste kontu bat da *Zero K*-ren argitalpen honek literatur- zale eskalduna ase ote lezakeen.

Gaia hipotesia

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

I. Mercero

Tapa gogor sendoekin bildua, 32 orrialdeko album ilustratua da, 25x18 cm-koa.

Aktoreak animalia jendetuak direnez, pentsa liteke haur ez hain kozkorrentzako obra dela batik bat –esaterako, irakurke- tan abiatu berri diren horiek–, baina heldutxoagoek ere plazera hartuko dutela iruditzen zait, es- tetikoki duen indarragatik, eta iradokitzen duen mezuarengatik.

Azeri ehiztari baten egun-pasa kontatzen zaigu, nola ezagutzen duen «paraje zoragarri» bat, eta zer gertaera harrigarri bizi dituen ondotik. Bide galduetan barrena eramaten dute azeria jo-puntuari jarriko zaizkion untxiak, akorda- tzerako gaua iritsiko zaio, eta etxerako bidea topatu ezinik gel- dituko da. Segidan ipuinaren

erresoluzioa dator, hemen kon- tatutako ez duguna.

Batik bat testuaren bidez gar- tzen da kontaketa, baina badira irudi bidez soilik jasotzen diren informazioak ere, albumaren teknika mistoa inoiz baino pre- senteago bihurtzen dutelarik. Bide batez esan, collage teknika aratzean eraiki direla ilustrazioak eta plazer estetiko handia sortze- ko gai direla.

Bitxia da Jesse Jacobsen *Safari Honeymoon* obrarekin nola egi- ten duen bat.



'Azeri jauna'

Idazlea eta ilustratzailea: Nekane Fernandez. **Argitaletxea:** Denonartean.